

NAFARROAKO GARAPEN LANKIDETZARAKO TOKI FUNTSAREN DEIALDIRAKO ETA BANAKETARAKO OINARRIAK (2020. urtea)

XEDEA

Nafarroako Garapen Lankidetzako Toki Funtzak, zeina Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak sortu baitu horretan parte hartu nahi duten toki entitateen ekarpenak eta ahaleginak elkartzeko, xedea du finantzazioa ematea garapen-bidean dauden herrialdeetan egoera ahulean dauden herrien funtsezko eta oinarritzko premiak betetzera bideratutako ekintzei.

PRINTZIBIO SUSTATZAILEAK

Funtserako ekarpenak printzipio hauen barnean kokatuko dira:

- Garapenerako lankidetzaren azken funtsa da ekonomikoki egoera txarrean dauden herrialdeetako biztanleekiko elkartasuna, eta horiekin gizarte- eta ekonomia-trukaketa gauzatzea.
- Lankidetzak horrek zuzenean edo zeharka lagundu behar du eremu hartzaileen garapen sozial eta ekonomiko endogenoa garatzen, ahal den neurrian tokian tokiko giza baliabideak bultzatuz.
- Funtzak finantzatzeko dituen jarduerak herritarren oinarri-oinarritzko premiak asetzerara bideratu behar dira.
- Toki entitateek sortutako funtsa izanik, funts horrek bereziki finantzatzeko dituen udalek berezkoak dituzten eskumenekin lotutako ekintzak, besteak beste
 - ✓ Udalek berezkoak dituzten eskumenen barruan azpiegiturak eraikitzea, eta horien artean bereziki edateko ura eta hondakin-uren saneamendua.
 - ✓ Azpiegiturak edo ondasunak eraiki edo hornitzea, eta oinarritzko osasunerako edo oinarritzko hezkuntzarako zerbitzuak mantentzea.
 - ✓ Herritarren jardun ekonomikoa sustatzera bideratutako ekintzak sustatzea, herritar horien premiak betetze aldera.

HERRIALDE ONURADUNAK

Funtseko laguntzaren onuradun izateko, herrialde batek jasota egon behar du Ekonomiako Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntzako Batzordeak (GLB) indarrean duen onuradunen zerrendan.

DEIALDIA

NUKFK laguntzen urteko deialdia eginen du, eta dauden baliabideekin hornituko da aipatu deialdia.

Halaber, hiru urteko deialdiak egin ahal izanen dira, eta Nafarroako toki entitateekin sinatutako hitzarmenekin martxan jarri.

ERAKUNDE ESKATZAILEAK

Deialdira bildu ahal izanen dira ondorengo atalean definitutako baldintzak betetzen dituzten garapenerako GKEak.

GARAPENERAKO GKEEK DEIALDIRA AURKEZTEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Funtsaren deialdietara bilduko diren GKEek honako baldintzok bete beharko dituzte:

- a) Izaera pribatuko pertsona juridikoak izatea, legeari jarraikiz eratuak eta dagokion erregistroan inskribatuak.
- b) Irabazi-asmorik ez izatea.
- c) Estatutuetan jasota egotea, erakundearen xede gisa, garapenerako lankidetzarekin eta herrien arteko elkartasunarekin ikustekoa duten jarduerak egiten dituztela.
- d) Egoitza edo ordezkaritza iraunkorra izatea Nafarroako Foru Komunitatean. Artikulu honetako a) atalak aipatzen duen erregistroko inskripzioaren bidez egiaztatu beharko da hori.
- e) Erakundearen helburuak bete ahal izateko egitura egokia izatea eta proposaturiko helburuak lortzeko behar diren esperientzia eta gaitasun operatiboa frogatzea.
- f) Proiektuetarako diru-laguntza eskatzen den egunean tokiko zergen betebeharretan eguneratua egotea, baita Gizarte Segurantzarekikoetan ere.

PROIEKTUEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Funtsaren deialdietara bilduko diren proiektuek honako baldintzok bete beharko dituzte:

- Oinarri hauetan adierazitako printzipioekiko egokiak izatea.
- Proiektuaren zeharkako kostuek ez dute kostu horien %10 gaindituko. GKEaren eta horren zerbitzuen edo kontrapartearen administrazio-gastuak hartuko dira zeharkako kostutzat, proiektuaren formulazioaren, jarraipenaren, ebaluazioaren eta zabalpenaren ondoriozkoak. Gastu horiek proiektuaren aurrekontuaren banakapenean aparteko partida batean jasoko dira

- Finantzaketaren %20, gutxienez, funts propioetatik, beste administrazio publiko batzuetatik nahiz beste entitate batzuetatik aterako da. Funtsak emanen duen diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, beste erakunde edo instituzio publiko nahiz pribatutatik lortutako diru-laguntzekin batera, eginen den proiektuaren kostua baino handiagoa.
- GKE eskatzaileak proiektua burutuko den eremuan bazkide bat edo kontraparte bat eduki beharko du, eta horrek gauzatuko du materialki proiektua. Bazkide hori, onura jasoko duen herrialdeko legeria betez, pertsona juridikoa izanen da.